

II. MBA EXECUTIVE kurtsoaren amaiera ekitaldia Mondragon Unibertsitatearen eta Gipuzkoako Bazkundearen eskutik.

2012/05/04

Mondragon Unibertsitateak eta Gipuzkoako Bazkundeak MBA Executive masterraren II. ekitaldi amaiera burutuko zuten atzo, Gipuzkoako Bazkundean. Masterra 2010ean jarri zuten martxan aipatutako bi entitate hauek. Gipuzkoako Bazkundeko presidentea, Pedro Esnaola eta Mondragon Unibertsitateko Errektorea, Iosu Zabala, arduratu ziren Tituluak banatzeaz. Kurtsoa gainditu duten 22 ikaslek jaso zuten tituluak.



Masterra lortu duten ikasleak 30 eta 45 urte bitartekoak dira. Industria mailako enpresetan eta zerbitzu enpresetan aritzen dira batibat eta ardura handiko postutan burutzen dute euren lana. Guztiek esperientzi profesinal zabala dute eta prestakuntza akademiko diferentea jaso dute Industria mailako Ingenieritzan, Enpresen administrazioan, Zuzenbidean, Matematikan edoeta Informatikan.

Masterran parte hartu duten ikasleak, Finantza, Estrategia, Marketinga, Eragiketak, Pertsonak, hau da, enpresaren alor funtzionalak ikasteko eskolak jaso dituzte, eta era berean eurak enpresak zuzentzeko dituzten abileziak landu dituzte. Une oro diziplina anitzeko irakasleak izan dituzte alboan, unibertsitateko, aholkularitzako eta enpresetako esperientziak eta ikuspuntuak konbinatuz.

Krisiari aurre egiteko bideratua

Executive MBA masterra, gaur egungo krisiari aurre egiteko bidaratua dago, zuzendari lanetan aritzen diren profesionalen lehia maila hobetzeko helburuarekin. Eta horrela Gipuzkoako enpresen lehiakortasuna hobetzea lortzen delarik.

Gaur egungo ekonomia krisiak enpresen eta enpresetako arduradunen jokatzeko modua aldatu du. Ziurgabetasun ingurune batean aritu behar dira eta une oro aldatzen ari den ekonomia batekin bizi behar dute. Eta hau guztia lehiakortasun maila handi batean ematen ari da. Hau dela eta, enpresetako zuzendarie helburuak betetzeko lidergoa izatea eskatzen zaie, taldeak helburuak betetzeko bideratzea eskatzen zaie, egoera konplexuei aurre egiteko abilezia izatea. Eta horrez gain, ikuspegi orokorra izan behar dute zuzendaritza lana eraginkortasunez, sormenez eta erantzunkizunez garatu ahal izateko.

Balorazio baikorra

Gipuzkoako Bazkundeak eta Mondragon Unibertsitateak elkarrekin antolatzen duten bigarren master honen balorazioa baikorra izan da. Elkarrekin lan egiten jarraitzea da bi entitate hauen helburua, enpresetako profesionalen heziketaren bitartez Gipuzkoako enpresak indartzeko.

Hori da hain justu, graduondoko kurtso honen helburua, enpresen ikuspegi osoa erakustea eta arlo eraginkorrenak nola funtzionatzen duten azaltzea. Era berean, berrikuntza bultzatzea eta norbanakoaren izaera pertsonala eta profesionala aldatzea lidergoa garatu ahal izateko, bakoitzak dituen gaitasunak eta abileziak kontutan hartuz.

Hirugarren edizioa ere arrakastatsua izaten ari da

Hirugarren edizioa martxan da une honetan. Eta edizio hau ere arrakastatsua izaten ari da. Horrez gain, Gipuzkoako Bazkundeak eta Mondragon Unibertsitateak elkarrekin lan egiteko akordioa berri dute eta urritik aurrera MBA EXECUTIVEaren laugarren edizioa jarriko dute martxan, enpresetako zuzendarien eta profesionalen artean oso ezaguna den graduondoa. **Hilaren 17an, IV. edizioaren inguruko informazio saio bat** antolatuko da, eta izen emateko epea irekiko da.

2012-2013 kurtsoan izen emateko epea, alegia.